

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Edozein egoeratako materien ezaugarriak eta hauen portaera deskribatzeko, ikerketa txikiak egin eta teoria zinetiko molekularra erabili.	<p>1.1. Edozein egoeratako materien portaera ongi interpretatu eta adierazi du eredu zinetikoaren eta atomiko-molekularraren arabera.</p> <p>1.2. Agregazio-egoeren arteko aldaketa ondo deskribatu eta irudikatu du, teoria zinetiko-molekularrean eta atomiko-molekularrean oinarrituz.</p> <p>1.3. Agregazio-egoeraren aldaketa gertatzeko eman beharreko baldintza arrazoitzen du, teoria zinetiko-molekularrean eta atomiko-molekularrean oinarrituz.</p> <p>1.4. Gasen tenperaturaren, presioaren edota bolumenaren arteko erlazioaren inguruko arrazoi egokiak adierazi ditu.</p>
2. Aldaketa fisikoak eta kimikoak bereiztu eta azken hauen arrazoiketa egin teoria atomiko molekularren bidez.	<p>2.1. Teoria atomiko-molekularrean oinarrituz, aldaketa kimikoen eta fisikoen arteko desberdintasunak zientifikoki azaldu ditu.</p> <p>2.2. Erreakzio kimikoan gertatutakoa ondo irudikatu eta azaldu du teoria atomiko-molekularrean oinarrituz.</p>
3. Ikerketa-helburuari erantzuten dion hasierako hipotesia baieztatzeko edota ukatzeko metodoa irudikatu, kontrastatzeko prozesua egin eta lortutako emaitzak komunikatu	<p>3.1. Ikerketaren hipotesi egokia formulatu du.</p> <p>3.2. Balizko ondorioa ongi justifikatu du.</p> <p>3.3. Emaitzak lortzeko proposamen bideragarria diseinatu eta idatzi du.</p>